

# noaua

Lokal hutsak  
biziberritzeko  
aukera berri bat

Matrikulazio garaia da

Udako ospakizunak,  
iruditan



## Transgresiorako jauzia

# HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

## 2017-18 MATRIKULAZIOA IREKITA



- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 [info@epalasarate.eus](mailto:info@epalasarate.eus)



# New York



943 373 613

**ABENDUAREN 3TIK 10ERA**  
Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.



  
**tobyngana**  
english SCHOOL

# Aurten bai edo bai!!!

Ingelera zure ondoan bertako irakasleekin

**Telefonoz deitu 686 499 775 (Toby), email bat bidali [tobyngana@hotmail.com](mailto:tobyngana@hotmail.com)  
edo eskolara etorri Alperroburu 2, Usurbil.**

*Zure esku dago!*

## Albiste iruditzen

# Lokal hutsak biziberritzeko deia

**E**kintzailea izan eta Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat jarri nahi duenak, udal diru-laguntza deialdira aurkeztu daiteke urriaren 31ra arte.

Lehenetasuna izango dute "herri guzuek nahiz auzoetan gaur egun herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek. Ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuek".

## Laguntzen zenbatekoa

Gehienez ere lehenengo bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira:

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren % 40a, gehienez ere 300 euro hilean.
- Bigarren urtean alokairu gastuaren % 30a, gehienez ere 200 euro hilean.



Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat jarri nahi duenak, udal diru-laguntza deialdira aurkeztu daiteke urriaren 31ra arte.

## Laburrean

### 1958an jaiotako bazkaria

Irailaren 9rako antolatuta otordua, arratsaldeko 14:00etan Antxeta jate-txean. Bazkaritarako izena, irailaren 3a baino lehen eman behar zen.

1955ean jaiotako eguna urriaren 21ean izango da (ikus 26. orrialdea).

### Kutxa Kultur Festibala, Zubietan

Zubietako hipodromoan ospatuko da lehen aldiz. Irailaren 15ean eta 16an musika talde ugari arituko dira bertan.

Informazio gehiago jaso edota sarrerak eskuratzeko, hauxe antolatzaileen web orria: [donostiakutxakulturfestibala.com](http://donostiakutxakulturfestibala.com)

### Katekesi taldeetan izena emateko garaia

Usurbilgo Salbatore Parrokiako katekesi taldeetan izena emateko egunak hauek izango dira: irailaren 12an eta 13an, arratsaldeko 18:00etatik 19:30era Parrokiako bulegoetan. Gurasoak bertaratzea komeniko litzatekeela diote Parrokiatik.

# noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) // [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!





Imanol Ubeda

## Oporretako egun batean

Sargori zegoen. Arropa erosoia jantzi eta goiz samar abiatu ginen. Hantxe ziren gure bizikletak, bezperan utzitako tokian. Etxe atarian, gure zain.

Hiriko txoko gehienak bisitatuak genituen eta noraezean abiatzea erabaki genuen, helmuga jakinik gabe. Postetxea aski ezaguna da nonbait eta, ataritik pasatzean, kamera atera eta erretratu bat egin genion.

Shopping gunera hurbildu gabeak ginen eta hara jo genuen gero. Erosketarik egiteko asmorik ez genuen arren, zonalde komertziala ere ezagutu behar genuela erabaki

genuen. Bizikletak lotzen hasi eta murmurio bat entzuten hasi ginen. Kalearen bestaldetik zertorren. Manifestazio bat zen. Zonalde komertzialean ari ziren protesta egiten. Animalistak ziren. Polizia aurretik, lagun ugari oihuka, polizia gehiago atzetik. Animalien eskubideen alde ari ziren. Hiriaren bihotzean.

Saltokiz saltoki ibiltzeaz aspertu ginenean, bizikletak askatu eta bide gorrirantz jo genuen berriro. Ezustean, gida ezberdinetan irakurritako bunker batekin egin genuen topo. Nazien garaiko eraikin bat baino gehiago dago hiri honetan. Estherhazy Parkeko bunkerra, esate baterako, zoo baten aterpe da

orain. Eta baita rokodromoa ere. Bertan eskalatzen duenak bista ederrak izango ditu. Une batean, faxistez josia ikusi nuen eraikina. Berehala kendu nuen pentsamendu iluna burutik.

Argazki kamerarekin klik batzuk egin eta belaze baten bila hasi ginen. Bazkaltzeko garaia zen. Entsalada bat, bi sandwich eta garagardo batzuk generamatzan motxilan. Erraza da parke bat topatzea. Zailagoa da usoetatik eta turista autobusketik aparteko txoko bat aurkitzea. Bilatu behar.

Arratsalde partean, kanal alderako bidea hartu genuen. Tel Aviv Beach lasai antzean zen. Gau partean ordea, festazaleen

gune nagusia da. Kanal ertetik jarraitu genuen, helburu jakinik gabe, eta bapatean tximinia handi bat begibistan. Modu artistiko batean apaindua zegoen, ondoko eraikin erraldoia bezalaxe. Zumetaren ukitua etorri zitzaidan burura. Gida atera eta Müllverbrennungsanlage Spittelau delakoaren aurrean geundela zioen. Gure muturrean: Viernako errausketa-planta. Hiriaren bertan. Bidegorriaren ertzean. Parez pare du metroko sarbide bat eta etxebizitzetaz inguraturik dago. Balkoietara begiratu nuen. Pankartarik ez inon. Normaltasuna nagusi zen turista honen begietan.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## BBVA badoa Usurbildik

Abuztuaren 16an, BBVAren email bat jaso nuen, Master Usurbilgo bulego itxiko dutela esanez, eta aurrerantzean egoitza Lasarte-Oriakoaren mende egongo dela iragarritz.

Harrituta geratu nintzen iragarpenarekin. BBVAko kutxazainaz baliatzeko, bezeroak 4 kilometro egin behar ditu harai-

no joateko eta beste 4 kilometro itzultzeko, eta hori gehiegizkoa iruditzen zait. Gainera, beste banku baten kutxazaina erabili nahi badugu, komisioak ordaintzera behartuta gaude.

Azkenean bertako bulegoan ixten badute, Usurbilgo BBVArekin tratuan gauden guztioi aldaketa esanguratsua eragingo digu, erabaki unilaterala

honen ondorioz bankuarekin hitzartutako baldintzei dago-kionez.

Horregatik, Usurbilgo egoitza ixten badute, aztertzen hasi beharko dugu ea ez ote diogun BBVAko bezeroak izateari utzi beharko.

Bestetik, ikusi dut Usurbilgo egoitza itxita egon dela uztailaren 31tik abuztuaren 28ra, ire-

kiera egingo den eguna. Egun batzuetarako bakarrik izango da irekiera hori?

Uste dut Usurbilgo herriak, 6.000 biztanlerekin, ez duela horrelakorik merezi. Nire kexua aurkeztu dut eta erabakia biren pentsatzea eskatu diet, Usurbilgo egoitza zabalik mantendu dezaten.

**Usurbildar bat\***

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 11.

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

## Neurrigabekeria onartezina, Altsasuko gazteei eskatutako espetxealdiak

Iazko urriaren 15ean Altsasuko taberna batean izandako gertakarien harira, Estatuko Fiskaltzak 62 urte eta 6 hilabeteko eta 50 urteko espetxealdiak eskatu ditu sei gazterentzat eta 12 urte eta erdiko espetxealdia beste gazte batentzat. “Zuzenbidezko Estatu batean onartezina litzatekeen neurrigabekeria”, EH-Bilduk aurkeztu eta uztailearen 26ko osoko bilkuran udalbatzak gehiengo osoz onartu zuen adierazpenak dioenez. EAJ-ko ordezkariak ere adierazpen hau babestu zuten. PSE-ko ordezkaria aurka agertu zen.

“Usurbilgo Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita”, dio aipatu adierazpenak. Normaltasun eta elkarbizitza demokratikoaren aurkakotzat jotzen du, “kasu hau inguratzeko duen neurrigabekeria”. Altsasuko gertaerak epaitzeko eskumena Iruñeako epaitegiarena behar lukeela defendatzen du adierazpenak, Nafarroako Probintzia Auzitegiak adierazi duen moduan.



Usurbilgo Udaletzeko EH Bilduk eta EAJ-PNVk bat egin zuten adierazpena babesteko garaian.

### USURBILGO UDALA

**Normaltasun eta elkarbizitza demokratikoaren aurkakotzat jotzen du kasu hau inguratzeko duen neurrigabekeria**

### Zuzenketa, zerga ordenantzetan

Zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen di-

tuen ordenantza behin behinean onartu zuen udalbatzak ekainaren 27ko osoko bilkuran. Uztailearen 6an eman zuen argitara Udalak erabaki haren berri, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

### Kiroldegiko informazioa

Akatsak zeuden ordea, Oiardo Kiroldegiko zenbait ikastaroren prezioetan eta uztailearen 26ko osoko bilkuran akatsok zuzentzea onartu zuen udalbatzak aho batez.

### Kataluniako erasoen aurrean

Abuztuaren 17an Katalunian izandako erasoak salatu ditu Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak adierazpen bidez, elkartasuna helaraztearekin batera. “Lehenik eta behin gure samina adierazi nahi diegu erasoan hilik edo zauriturik izan diren herritarrei eta haien familiei, baita Kataluniako herriari ere. Giza eskubideetan eta demokrazian oinarritutako gizarte eredu sinesten dugu eta horren alde lan egiten dugu eta borrokatzen dugu eguneroko mundu osoan gertatutako giza eskubideen eta oinarritutako printzipio demokratikoen aurkako eraso guztiak salatzen ditugu”.

### Bake epaile titularra eta ordezkoa, hautatuak

Usurbilgo Bake Epaitegirako langileak hautatu ditu Udalak. Agustin Esnaola Etxabe izango da epaile titularra eta Laura Gorrochategui Echebare ordezkoko epailea. Hala erabaki zuen aho batez udalbatzak, uztailearen 26ko osoko bilkuran, eskaerak aurkezteko aurrez zabalik izan zuten epean hiru hautagai aurkeztu ostean. Hautagaiotako bi izan dira beraz hautatuak.

## Beterri Buruntza garapen batzordeko ordezkari politikoaren izendapena

Udal mailako toki-garapenaren, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorreko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten urte hasieran Beterri Buruntzako sei udal; Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta

eta Usurbilgo Udalek.

Egitasmo honen baitan sortutako batzorde kudeatzaile-rako udal bakoitzak ordezkari izendatu du. Usurbilgoa, Xabier Arregi Iparragirre alkatetik eta Alaitz Aizpurua La-

baka zinegotziak osatzen dute. Uztailearen 26an egin zuten osoko ohiko bilkuran, bi ordezkari politikoen ordezkokoak izendatu zituen udalbatzak; udal gobernu taldeko kide Jone Urdampilleta Urdampilleta eta

Irene Gartzia Palacios hain zuzen. Izendapenok gehiengo osoz onartu ziren; EHBilduren aldeko bozkek. EAJ-ko ordezkariak aurka agertu ziren eta PSE-ko zinegotzia abstentitu zen.

# Aste honetan abiatu da ikasturte berria

Ostegun honetan abiatzekoa zuten 2017-18 ikasturtea ikastetxeetan; Udarregi Ikastolan, Zubieta eta Aginagako eskoletan, baita Lanbide Eskolan ere. Udarregi Ikastolako DBH-koak goiztiarragoak izan dira halere, irailaren 6an izan baitzuten lehen klase eguna.

## Zumarten aldaketak

Musika eskolakoek ere ostegun honetan zuten ikasturte berria abiatzekoa. Baina ez ohiko Kale Nagusiko Villa Pilar eraikinean, dakizuenez berri eta handitzera baitoaz. Horregatik, datozen bi ikasturteotan, Udarregi Ikastolan eta Santueneko frontoi ondoko lokalean bilduko dira musikariak. Bulegoa berriz, garai bateko Puntapax kaleko Atez Ateko Informazio gunean kokatuko da.

Zumarteren handitze eta berritze lanei lotutako erabakia hartu zuen udalbatzak uztailaren 26an eginiko osoko bilku-



DBHko ikasleek irailaren 6an hasi zuten ikasturtea.

### UDARREGI IKASTOLA

**“DBH-koak izan dira goiztiarrenak, irailaren 6an izan baitzuten lehen klase eguna”**

ran. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorren Antolamendu Xehatuaren

aldaketa hasieraz onartu zuten gehiengo osoz EHBilduren aldeko bozkek. EAJ-PNV aurka agertu zen eta PSE absenitu zen. Rezustaenea eremu horretan kokatzen da Zumarteko eraikina, Villa Pilar. Aipatu eremua, “egunero erabilera etorkizuneko beharretara egokitzeko ezinbestekoak dituen handitze eta birgaitze baldintzetara egokitzea da helburua”.

## Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak

2016-17 ikasturtean euskara ikasten aritu ziren 35 ikasleek udal diru-laguntzak jasotzeko eskaera egin zuten ekainaren 26tik uztailaren 7ra artean Udalak finkatua zuen epearen baitan. Udalak abuztuaren 14an eman zituen argitara udal Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek uztailaren 27an hartutako erabakiaren xehetasunak. Guztira, 13.796,16 euroko laguntza ematea onartu zuen behin behinean, interesdunentzat alegazioak aurkezteko 10 eguneko tartea zabaltzea erabakitzearekin batera. Behin betiko diru-laguntzen ebazpenak irailean argitaratuko dira.


### Aisialdikoan, eskaerarik ez

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzako diru-laguntza deialdia ere plazaratu zuen Udalak. Aldiz, inork eskaerarik ez zuen aurkeztu, Udalak ekainaren 26tik uztailaren 7ra zabaldu zuen epearen baitan.

# Beka deialdia, Kabieneen urtebeteko egonaldirako

Urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezan.

Bekadunak bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango du eta harreman-sare indartsuago batekin ekin ahal izango dio lanari. Beterri-ekinean zerbitzutik tutorizazio bat emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio.



Osinalde industriagunean da Kabiene, Elhuyarren egoitza. Argazkia: Kabiene.

### Irailaren 30era arteko epea

■ Bekaren zenbatekoa: gehiengo zenbatekoa 12 hilabeteko egonaldia izanez gero 1.089,00

eurokoa.

■ Onuradunen betebeharrak: Adinez nagusia izatea; Beterri-Buruntza eskualdeko uda-

lerritakoren batean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) erroldatua egotea; Usurbilgo Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea; Usurbilgo Udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea; Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan alta emanda ez egotea edo gehienez ere 2017. urtean alta eman dutenak, eta norberaren kabuz ekonomia jarduera bat gauzatzen ez aritzea. Garatzen ari diren proiektuak baino ezingo dira aurkeztu, deialdiaren helburua ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita.



# Iraila, matrikulazio garaia



Etumeta AEK euskaltegian izen emateko ordutegia hauxe da: astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 artean.

**H**ainbat ikastaroetan izen emateko garaia zabaldu dute. Eskaintza zabala duzue aukeran urtero moduan.

## Muxurbil

5 urtetik gorako herritar orori zuzenduriko antzerki taldeak hilabete honetan bertan abiatuko du ikasturte berria. Klaseak ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan izango dira. Izen eman eta argibide gehiago jasotzeko, deitu 675 71 23 83 (Ixabel) telefono zenbakira.

## KzGunea

Irailan, arratsalde zabalik

### EUSKALTEGIA

**Matrikulazio epea zabalik da. Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalguna, autoikaskuntza... Aukera zabala da**

16:00-20:00 artean.

■ Irailak 18-19, 16:00-18:00: "Wikipedia. Elkarlaneko entziklopedia digitala".

■ Irailak 18-19, 18:00-20:00: "Erosketa seguruak Interneten".

■ Irailak 28-29, 18:00-20:00: "Doako antibirusak. Zure orde-nagailua babestu".

■ Informazioa: 943023684.

tutor.usurbil@kzgunea.net

## Etumeta AEK euskaltegia

2017-18 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dute Etumeta AEK euskaltegian. Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalguna, autoikaskuntza... Aukera zabala beraz.

■ Izen emateko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 / 18:00-20:00 artean.

■ Informazio gehiago:

Nagusia, 43

607 609 379

usurbil@aek.eus

aek.eus

muntteri.blogspot.com.es

## Alkartasuna Kooperatibaren ikastaroak

**"Sagarraren heldutasun analisiak. Etxean sagardoa egiteko hastapenak"**

■ Irailaren 9an, 09:00-13:00 artean Potxoenean, Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiainen eskutik.

■ Izen ematea 15 eurotan (bazkideek doan) bideotatik:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

**Basalandare xaboiaren tailerra**

■ Irailaren 16an 09:00-13:00 artean, Potxoenean.

■ "Basalandare xaboiaren ikastaroa antolatuko dugu Jone Aldabaldetrekurekin eta Rita Aldabaldetrekurekin. Eskuzko xaboa osagai desberdinez nola sortu ikasiko dugu, eta partaide bakoitzak xaboi bat

eramango du. Ikasleek tailerretan yogurth ontziak ekarri behar dituzte, molde gisa erabiltzeko".

■ Ikastaroko prezioa, 35 euro, Alkartasunako bazkideek doan.

■ Izen emateko:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

## Einean Guraso

### Eskola

Aurtengoan antolatuko dituzten ikastaroetan izen emateko irailaren 15era arteko epea dago. Herritar orori zuzendutako saioan argibide gehiago, irakasleekin hartuemanetan jarrita jaso daiteke:

### Laboreak

■ Noiz: astean behin 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea: Juani (609 41 38 83).

■ Bolilloak, "punto cruz", gantxilloa...

### Yoga

■ Noiz: astean behin 1,5 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea: Katia (636 71 15 14) / Sebas (605 72 28 25).

■ Luzaketak, arnasketak, la-saitzea...

### Pintura

■ Noiz: astean behin 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

■ Oleoa, akuarela, pastela...

### Eskulanak

■ Noiz: astean behin 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

■ Teknika ezberdinak ikasi gauza politik sortzeko edo berritzeko.

### Masajea

■ Noiz: astean behin 2 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea: Sebas (605 72 28 25).

### Sabel dantza / Hip Hop

■ Noiz: astean behin 1,5 ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Irakaslea: Uarda (637 25 68 51).

■ Bi dantza hauek ikasteko aukera.

# Erraustegiaren aurka eta osasunaren alde, Kontxako giza-katera lotzeko deia

**D**onostiako Klasikan mobilizatu ziren, Aste Nagusian “gaixoen martxa” batekin hiriburuko Alde Zaharra zeharkatu zuten. Irailaren 10erako iragarri dute hurrengo hitzordua.

Urte asko daramatzate Donostiako estropaden bigarren jardunaldi egunean, Kontxa hondartzan osatu ohi duten giza-kate luze baten bidez erraustegiaren aurka mobilizatzen. Urte asko aipatu moduan, baina aurtengoa ezberdina izango dela iragarri dute ekimen honen deitzaileek. “Aurten egoera berri baten aurrean aurkitzen gara: Zubietako erraustegiaren obrak hasiak dira. Hala ere gure borrorak darrai, ez dugu etsitzeko asmorik eta gertatzen dena gertatzen dela ere, hiri hondakinen errausketaren aurka jarraituko dugu. Klase politiko errausketazalearen eta modu batera edo bestera inplikaturta dauden enpresen interesak salatzen jarraituko dugu eta modu guztietako oztupoak jartzen saiatuko gara”, iragarri zuten agerraldi bidez aurreko astean.

## Alternatiben eta osasunaren alde

Herritarrak, igande honetan, irailaren 10ean, Donostiako estropaden bigarren eta azken jardunaldi egunean, Alderdi Ederretik Kontxako hondartzara jaisteko dagoen aldapa horretara gerturatzera deitzen dituzte goizeko 11:30etan. Hortik abiatuko da gero hondartzan zehar, “Alternatiba dagoelako, errausketarik ez! Guretzat eta ondorengoentzat osasuna nahi dugu!” aldarrikatuko duen giza-katea.

Errausketaren Aurkako Mugimenduak, Errausketaren



Giza-kateko deitzaileek azpimarratu dutenez, “ezin dugu ahaztu Zubietako erraustegia hainbat gezur handietan oinarrituta dagoela”.

## IGANDE HONETAN

**Alderdi Ederretik  
Kontxako hondartzara  
jaisteko dagoen aldapa  
horretara gerturatzeko  
deia egin dute.  
Goizeko 11:30ean  
abiatuko da  
giza-katea**

Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak eta Donostia Bizirik herri plataformak deitutako ekimenak eragile politiko, sindikal eta gizarte eragileen babes zabala jaso du. EHBildu, Alternatiba, Equo, Irabazi, Ezker Anitza, Podemos, CCOO, ESK, Duintasuna, LAB, Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace, eragile guztiok bat egin dute jada, hilaren 10eko mobilizazioarekin.

## “Gezur handietan oinarrituriko proiektua”

Giza-kateko deitzaileek azpimarratu dutenez, “ezin dugu ahaztu Zubietako erraustegia hainbat gezur handietan oinarrituta dagoela”. Beste behin, gezurtatu dute erraustegiaren beharra dagoenik, zabortegeiak beharko ez direnik, erraustegiak kutsadurarik sortuko ez

duenik... Erraustegiaren 1.000 milioi euro baino gehiagoko kostua salatu dute eta oso lanpostu gutxi sortuko dituela iragarri. “Ekonomia zirkularraren oinarritutako proiektu batek, merkeago izateaz gain, hamar aldiz lanpostu gehiago sortuko du eta dirua Gipuzkoan bertan geratuko da”, nabarmendu dute.

## Tren zerbitzu gehiago

Larunbatean Zarauzko Euskal Jaietara eta igandeko giza-katera eta Kontxako Banderaz gozatzerako joateko tren zerbitzuak gehituko ditu Euskotrenek, urtero moduan. Informazio gehiago: euskotren.eus, 944 333 333.

## GuraSOS, Bruselara

Iraila amaieran Europara, Bruselara eramango du GuraSOSek erraustegiaren finantziazioaren iruzur salaketa. Gogoan izango duzue uztailaren 12an Espainiako Senatuan, Madrilen izan zela guraso taldea, erraustegiaren kontratuaren iruzur hau salatzen. Jada sare sozialetan iragartzen ari direnez, “hasita gaude motorrak berotzen Donostiako erraustegiaren kontratuaren iruzurra European salatzeko. Irailean Bruselan”.

## Zubietan, gas hodiak sartzen

Zubieta gainean eraiki asmo dituzten erraustegi, makroartzela eta industria gunerako gas hodiak sartzeko lanetan dira uztailez geroztik. Hasieran Santuenea Zubietarekin lotzen zuen bidean aritu ziren lanean, azken asteotan mendian gora aritu dira gas hodiak sartzen.

## Banderolak salgai

Alkartasuna Kooperatiban eskura daitezke 8 euroren truke, leiho eta balkoietan zintzilikatzeko erraustegiaren aurkako oihalak.

## “Min(a)bizi” bira, arrakastatsua

Erraustegiaren aurka grabaturiko abestiaren izen bera duen bira egin du udan zehar Odolaren Mintzoa taldeak. Zubieta eta Urdaigako jaietan kontzertu bana eskaini zuten. “Hain ederra izan zen, luzatzea erabaki dugula”. Irailaren 2an Urruñan eta hilaren 16an Donostiako Egia auzoko Porrontxo jaietan kontzertu eskaintzekoa da Luken Arkarazo, Beñat eta Joanes Txueka eta Jokin Irastorza laukotea. Gogoan izan, ekainean grabatu eta uztaillean plazaratu zutela sare sozialen bidez “Min(a)bizi” abestiaren bideoklipa. Abesti hau, laster argitaratzekoak diren diska berrian izango duzue entzungai.



Erraustegiaren aurka grabaturiko abestiaren izen bera du birak.



# Lanen bigarren fasea tramitatzen hastekotan dira

Gipuzkoako Hondakinen Kortsortzioa (GHK) erraustegia eraiki nahi duten eremuko lanen bigarren fasea garatzeko tramitazio prozesuan da. Administrazio-kontseiluak azpiegituraren aurreproiektua eta bideragarritasun-plana onartu zituen uztaila amaieran. Erakundeko lehendakari eta Foru Aldundiko ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok irailaren 5erako deitua zuen GHK-ren batzarra, "bigarren fasea kontratatzeko tramiteak hastea onartzeko".

Lanen bigarren fase honen baitan, urtero gaika bildutako 40.000 tona organiko tratatzeko gaitasuna izango duen biometanizazio planta bat eta zepak obra publikoetarako arido birziklatuetan bihurtzeko urteko 52.000 tona tratatzeko gaitasuna izango duen planta eraiki asmo dituzte. Zubietako Eskuzaitzetan, 31.988 metro karratuko partzela batean.

37 milioi euro bideratu asmo dituzte azpiegiturora. Lanen bigarren fase hau, 2018ko maiatzean abiatu eta 2019. urteko erdialderako martxan egotea aurreikusten dute. Le-



Irailaren 5erako deitua zegoen GHK-ren batzarra eta bertan tramitatzen hastekoak ziren bigarren faseko lanak,

## AZTERKETA

**Foru Aldundiak Bionostia Institutua Elkarteari esleitu dio erraustegiari buruzko azterketa epidemiologikoa egiteko ardura. Guztira, 544.500 euro bideratuko dira egitasmo honetara**

hen faseko lanekin, erraustegia eta tratamendu mekaniko-biologikorako plantarekin batera, eraiki nahi dituzte bigarren faseko planta hauek ere. Legealdia amaitezera, 2019ko udaberrirako azpiegitura guztiok martxan izatea nahi ditu Foru Aldundiak.

## Azterketa

### epidemiologikoa

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Bionostia Institutua Elkarteari esleitu dio, erraustegiari buruzko azterketa epidemiologikoa egiteko ardura. Guztira, 544.500 euro bideratuko ditu Aldundiak egitasmo honetara.

## Gas hodiak mendian gora

Zubieta gainean eraiki asmo dituzten erraustegi, makrokartzela eta industria gunerako gas hodiak sartzeko lanetan dira uztaillaz geroztik. Azken asteotan mendian gora aritu dira gas hodiak sartzeko.

## Txertatu Merkatuan, lanik gabe dauden gazteei eskainitako programa

Beterri-Buruntzako udalek Txertatu Merkatuan prestakuntza programaren edizio berri bat iragarri dute. Programa hau Beterri-Buruntzako gazteei eskainia dago eta lan mundurako sarbidea erraztea du xede. Aurten, hauxe izango da eskainitako den formazioa: margoketa industrial eta bizikleten konponketen prestakuntza. Langabezian dauden eta eskola lerrotik at dauden 18-22 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute Txertatu Merkatuan programan. Irailaren 7an hasiko da eta abenduaren 12ra arte iraungo du. Astelehenerdik ostiralera, arratsalde, egunean 5 orduz. Plaza kopurua: 14. Beterri-Buruntzako udalerriko gazteek lehentasuna izango dute.

### Prestakuntzaren edukiak:

- Gizarte, lan orientazio eta integrazioarako teknikak.
- Bizikleten konponketa eta margoketa industrialeko prestakuntza.
- Prestakuntza astelehenerdik ostiralera izango da egunean 5 orduz arratsaldetan.

### Izen-ematea:

- Tokia: Urigain Etxea. La Salle Etorbidea, 6. 20140 Andoain.
- Orduategia: 09:00etatik 15:00etara.

### Informazio gehiago:

- 943 30 42 21
- txertatumerkatuan@andoain.eus



Beterri-Buruntzako udalerriko gazteek lehentasuna izango dute.

# Udal errekurtsioa, San Markoko aurrekontuen aurka

San Marko Mankomunitateak 2017ko aurrekontuak behin betiko onartzeko hartutako erabakia Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurrituko du Usurbilgo Udalak, uztaillaren 26ko osoko bilkuran udalbatzak gehiengo osoz (EH-Bildu alde, EAJ aurka eta PSE abstentzioa) berretsitako alka-

tearen dekretu bidez. Usurbilgo Udala ordezkaturiko duten abokatu eta prokuradoreak izendatu zituzten.

### 31 milioiko aurrekontua

San Marko Mankomunitateak apirilaren 28an hasieraz onartu zituen 2017ko aurrekontuak. Erreklamazioa aurkeztu zien

Udalak, apirilaren 27ko osoko bilkuran udalbatzak hala erabakita. Mankomunitateak ordeza erreklamazioa aintzakotzat hartu ez eta ekainaren 6an ia 31 milioi euroko aurrekontuok behin betiko onartu zituen. Behin betiko onarpen hau auzitara eramatea erabaki du orain Udalak.

# Baba beltz txikiari gorazarre

**L**au hamarkadako historia ba omen du jada eta erritua hutsik egin gabe ospatzen jarraitzen dute. Abuztuko azken ostegun batean hasi ziren biltzen, eta tradizioa bizi asko mantentzen dute momentuz. Aurtengoa behintzat egin dute. Berezia zuten 2017ko hitzordua, ekimenari nortasun propioa ematen dioten kapa beltzak janzen hasi zirenetik 20 urte bete baitituzte.

Baba beltz txikiari gorazarre egiten dion herritar taldeaz ari gara. Joan den abuztuaren 31n bildu zen Saizar Sagardotegian. Hitzordua “eskenatoki” gehiagotatik igaro da aurrez. Etxealdia aldean ospatzen hasi ostean, gero Bordatxora igaro eta handik Andazpe izan dute orain bi urtera arte baba txikiari gorazarre egiteko aterpe nagusia. Andazpe eta Peña Pagolaren bueltako eta herriko beste hainbat gizez kokoz osatzen dute kofradia modukoa.

Baina zergatik gorazarre egin baba txikiari? Ohitura nondik datorren galdetu genien abuztuaren 31n Saizarren ospaki-



Lau hamarkadatan gorazarre egin diote baba beltz txikiari.

## BABA BELTZ TXIKIAREN KOFRADIA

**“Abuztuko azken ostegunetz hasi ziren biltzen, eta hutsik egin gabe eman diote segida 40 bat urtez”**

zun artean ziren herritarrei. Joxe Ramon Sarasolak eta Pedro Mari Matxainek eman zizkiguten azalpenak. “Abuztua zen. Garai hartan nagusiek izaten zituzten oporrak, guk ez. Zakukada baba genuen. Zer

egin behar dugu honekin?”, galdetu zioten haien buruari. Segituan aurkitu zioten Matxainen esanetan, urtez urte ohitura bihurtzen joan eta jada ibilbide luzeko tradizioan bilakatu den irtenbidea, “arazo” hari.

## Baba, urri gaur egun

Abuztuko azken ostegunetz hasi ziren biltzen, eta hutsik egin gabe eman diote segida ordutik. Aipatu moduan, egoitza eta sukaldari aldaketa bat baino gehiago izan ditu hamarkadotan ospakizun egun honek. Gorazarre egin ohi dioten pro-

duktua ere gogotik urritu dela aipatu digute. “Gaur egun baba txikia oso gutxi ekoizten da hemen, Nafarroa aldean bai. Dastatzen ari garen baba nafarra da. Pentsa, gaurko baba eskuratzeko hiru bidaia egin behar izan ditut Arbizuraino”, adierazi zigun Joxe Ramonek.

## Usurbildarrak eta kanpokoak

Koadrila jendetsua aurkitu genuen Saizar Sagardotegian baba txikiari gorazarre egiteko ospatu berri duten azken edizioan. Baina nabarmendu zigutenez, bilkura jendetsuagoak izan dituzte iraganen. “Andazpen 80 lagun elkartzera ere heldu ginen”, Sarasolak oroitzen duenez. Usurbildarrak dira nagusiki bilgune honetan daudenak, baina Gipuzkoako beste zenbait txokoetatik ere hutsik egin gabe etortzen segitzen dute abuztuko azken osteguneko ospakizunetara. Aurtengoa horren erakusgarri. “Usurbilgoez gain, Tolosakoak, Villabonakoak, Ordiziatik ere etorri dira”, berri eman dio NOAUA!ri Pedro Marik.

# “Gu joaten garenean bukatuko da”

**E**torkizunari buruz galdetu diegu, ia lau hamarkadaz bizirik eutsi dioten tradizio honek ibilbide luzeagoa izango ote duen etorkizunean. Ez dira oso baiko-rrak. “Geroz eta jende gutxiago biltzen gara. Gu zahartzen goaz, gazteak ez dira sartzen”, adierazi diote NOAUA!ri.

## Errelebo falta

Taldea bizirik mantentzea ahalbidetu dezakeen erreleborik ez dute sumatzen gaurkoz. Honenbestez, kolokan ikusten dute taldearen etorkizuna. “Gu joaten garenean bukatuko da”, aurreikusitako du Matxainek.



“Geroz eta jende gutxiago biltzen gara. Gu zahartzen goaz, gazteak ez dira sartzen”.



# Ereserki propioa duen ospakizuna

**B**aba txikiari gorazarre egiteko urteroko bilkurak ezinbestekoak diren bi osagai ditu; batetik otordua bera, menua. Bestetik, bazkalostean egin ohi duten erritu modukoa. Bazkariari dagokionez, produktu izarra baba beltz txikia dugu. Eta bazkalostean dator, nolabait esatearren, eguneko une gorena.

Aurten Luis Aranalde apaizak organoz lagundutako kantu giroan urtero kofradiako kide berri bat izendatzen dute, urtebete barrurako kide berria nor izango den iragartzearekin batera. Hautatutakoari kapa eta txapela jarritz, bataio moduko ospakizuna burutzen dute, lurra lantzeko tresna baten, laiaren laguntzaz. Aurten hogeigarrenez bete dute erritua. Kofradiak duen ereserkia abestuz, kide berriari



Abuztuaren 31n batu ziren. Saizar sagardotegiaren atarian atera zuten talde-argazkia.

ongi etorria eman zioten lehen-dik kofradekide izendaturikoek. Guztiak abuztuaren 31n Saizar Sagardotegi atarian ateratako

ondoko talde argazkian dituzue. Hamarkada luzeotan kofradekide izendaturiko bat baino gehiago falta da. Desio hori

ere plazaratu zen, baba txiki beltza goraiatzarekin batera, bertaratu ziren guztiak urtebete barru biltzeko modua izatea.

## Ostiral honetan, Masusta zaletuen txanda

**B**aba txiki beltza kofradiaren bilkuraren ostean, masusta zale eta biltzaileena dator orain. Aurten Txirristan ez, lanak tarteko itxita baitago. Artzabal jatetxe-ko mahaiaren bueltan dastatuko dute, nola ez, masustarekin sukaldaturiko jakiak.

Baba txiki beltzaren kofradiako bazkariaren antzera, masustari eta bere propietateei gorazarre egiten dion otordu hau ere irekia da. “Masusta oso fruitu kaskartzat hartu izan da, edo merezimendu gabekoa. Baina ikasi dugunez, alderantziz da. Masustak egundoko propietateak ditu; indar garbitzailea du, barruak garbitzeko oso ona, bitamina aldetik C eta A ditu, kaltzioa du, burdina ere bai, indar antioxidatzailea eta ematen zaion erabilpena ere zabala da; mermeladak egiteko, likorea ere egiten da”, oroitarazten ziguten



Masustaren Kofradia eratu zenetik 10 urte pasa dira. Ospakizun borobila izango da aurtengoa.

masusten kofradiatik, duela urte batzuk aldizkari honi eskainitako elkarrizketan.

### Kide berri bat urtero

Edonor bertaratu daiteke masusta zaleen festara, baina aurrez izena eman edo lekua erreserbatu beharra dago Artzabalen. Ospakizun borobila dute aurtengoa; kofradia eratu zenetik 10 urte bete baitira. Taldeak normalki, iraileko bigarren ostiral iluntzean

antolatuta ohi du urteko egun handia. Afariak masusta usaina izango du.

Masusta jan edanean ikusteko aukera izango da, baina badute baita mahai gaina apaintzeko ohitura ere. Aurreko urteen antzera, Josune Aramburu kitar jolearen laguntzaz, kantu giroan afaldu, afalostean iaz hautatutako kofradekide berria izendatu eta 2018rako kide berriaren izena iragarriko dute.

### Masustaren Kofradia

- Eguna: irailak 8, ostirala.
- Ordua: 21:00.
- Tokia: Artzabal Taberna.
- Zehaztasunak: “2007. urtean eratu zen Masustaren Kofradia Txirrista Tabernan bost lagunekin. Geroztik, urtez urte ospatzen da irailean Kofradiaren Eguna. Aurten, hamabosgarren kofradea izendatuko da. Dena jai eta kantu giroan ospatzen da. Ekintza erabat irekia da etorri nahi duen herritarrarentzat.
- Egitaraua:
  - Afari irekia Artzabal tabernan (aldez aurretik izena eman behar da).
  - Kofradegaiaren aurkezpena.
  - Jantzi banaketa eta janzea.
  - Masustaren propietateen irakurketa.
  - Kofrade berriaren zin egitea.
  - Hurrengo urterako kofradegaiaren izendapena.
  - Masustaren ereserkia”.



# Urriaren 22an ospatuko da Mundualdia

Herri Anitza festak izenburu berria izango du aurrerantzean: Mundualdia jaialdia. Aurten goa irailaren 24an egingo zela iragarri zuen duela aste batzuk Usurbilgo Udalak. Egun horretan, ordea, Kilometroak Eguna ospatuko dute Oñatin. Ikastolen aldeko festara herri-tar asko hurbildu ohi direnez, Mundualdia atzeratzea erabaki du Udalak. Urriaren 22an egingo dela iragarri dute udal web orrialdean.

## Kartelaren diseinu lehiaketa

Ekitaldikoko kartela egiteko diseinu lehiaketa antolatu du Udalak. Oinarriak, hauek:

- Lehiaketa publikoa eta irekia izango da. Lana originala eta argitaratu gabea izango da, beste lehiaketetan parte hartu gabea, eta ez da izango beste lan batzuen kopia, ez guztiz, ez zati batean.
- Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun. Nahi adina lan aurkez daitezke.
- Lehiaketa irabazten duenak



Irailaren 24rako iragarri bazen ere, urriaren 22an egingo da Mundualdia jaialdia. Iaz egin zen "Herri Anitza" festaren oinordeko ospakizuna.

## MUNDUALDIA JAIALDIA

**"Jaialdiko kartela egiteko diseinu lehiaketa antolatu du Udalak. Irailaren 22an amaituko da lanak aurkezteko epea"**

200 euroko saria jasoko du.

- Lana irailaren 22a baino lehenago erregistratu behar da Usurbilgo Udaleko erregistroan edo postaz bidali beharko dira. Hauxe helbidea: Usurbilgo Udala / Jose Martin Sagardia Plaza z.g. / 20170 Usurbil.
- Proposamenak postaz bi-

daltzen direnean, posta-bulegoan bidaltzen deneko data justifikatu beharko da, eta egun berean e-mail bat bidaliko da udalera erregistroa@usurbil.eus helbidera.

■ Egitarauaren diseinua egitarakoan, egitarauaren testua txertatzeko aukera eman behar duela aurreikusitako behar da (behin betiko testua txertatu beharko du).

■ Horretaz gain, Usurbilgo Udaleko logoa ere eduki beharko du.

■ Mundualdia Usurbilen kartel-egitaraua euskaraz eta gaztelerez egingo da; euskaraz

lehenetsuna izango du. Beste hizkuntzak bertan agertzea ere baloratuko da.

■ Lanaren neurria, librea.

■ Lanak euskarri digitalean eta paperean aurkeztu behar dira. Euskarri digitalean: CD edo pendrive batean, aurkeztu beharko da eta PDF formatuan egingo da.

■ Xehetasun gehiago: usurbil.eus

## Irailaren 13an, Mundualdiari begirako bilera

Beste ekitaldien artean, aurreko urteetan Usurbil Herri Anitza jaialdietan egin izan den antzera, herrialde ezberdinetako jakien dastaketa ospatuko da urriaren 22rako antolatzen ari diren Mundualdiaren baitan. Jaki dastaketa hau antolatzeko bilera deitu du Usurbilgo Udalak, irailaren 13rako 19:30ean Potxoenean. "Bai ekintza honetan, bai egunaren antolaketan parte hartu nahi izango duten guztiak gonbidatuta daude bilerara", adierazi dute Udaltetik.

## Izen ematea, Orbeldi Dantza Taldean

Urriaren 2ko astean abiatuko du ikasturte berria Orbeldi Dantza Taldeak. Aurrez eman beharko da ikasturte berrirako izena, aipatu bilgunetik jakitera eman dutenez:

### Izen ematea:

- Emailaz: orbeldi.udt@gmail.com
- Izen emateko jendaurreko hitzorduak: irailak 14 edo 15, 17:00-20:00 artean Orbeldik Oiarde Kiroldegi sarreraren duen dantza gelan.
- Prezioa: haurrek 65 euro, hel-

duek 75 euro (ordainketak azaroan egin beharko dira).

### Klaseen ordutegiak:

#### Helduen taldeak:

- Erromeria taldea, asteazketan 19:30-21:00 artean.
- Garaikide taldea, astelehenean 19:30-21:00 artean.
- Tradizionala, izena ematen dutenen artean finkatuko da ordutegia.

#### Haurren taldeak:

Ordutegia finkatzeko bilera irailaren 22an, 18:00etan Udaregi Ikastolako erdiko aretoan.



Urriaren 2ko astean hasiko dira Dantza Taldeko klaseak.

## Izen ematea Hazilan programan

Unibertsitate-titulua edo goi-mailako prestakuntza zikloa egina izan eta lan aukera berri baten bila dabilen 20-44 urte arteko eskualdeko langabetuei zuzendua dago Hazilan. Enpresa batean praktikak egiteko aukera eskaintzen duena. "Etorrizuneko proiektuak dituzten enpresak identifikatzen ditu eta lan bat lortzeko behar dituzun baliabideak ematen dizkizu". Informazio gehiago: 943 30 42 21, hazilan@andoain.eus, hazilan.eus

# Usurbil Cup, bete-betea

Parte hartze aldetik haur eta gaztetxo gehien mugiarazten dituen ekimena izango da Usurbil Cup. Irailaren 1ean abiatu zen. Azken egunotan lehen bi jardunaldiak jokatu dituzte. Asteburuan ospatuko da hirugarrena. Segidan dituzue Usurbil F.T.-k aurreikusitako dituen neurketen ordutegiak. Urriaren 7an festa giroan, final eta sari banaketa arrakastatsuekin borobilduko dute edizio hau.



Irailaren 1ean hasi zen Usurbil Cup txapelketa.

I.P. Foto  
Atsedendia: Laurok.

## Irailak 9 larunbata, Haranen LH 3, 4

10:00 Suzko Taldea-Usurbil Sport  
10:50 Urtxintxak-Esnaola Janaridenda  
11:40 Futbolari Basatiak-Tximista

## Alebin mutilak

10:00 Mur-Lagun Onenak  
10:50 Artzabal-Bugati Erretegia  
11:40 Aizpurua Okindegia-Opil Goxo

## 3. jardunaldia:

### Irailak 8 ostirala, Haranen

#### Minibenjaminak

16:30 Kaffa-Icoman  
16:30 N.I. Ileapaindegia-Txirinbolo  
16:55 Txirinbolo-Otar Goxo  
16:55 Kaffa-Itzira Eraikuntzak

17:20 N.I. Ileapaindegia-Itzira Eraikuntzak  
17:20 Icoman-Otar Goxo

#### LH 4,5,6 neskak

16:30 Txiriboga Taberna-Maiur

17:20 Aitzaga-Aratz Erretegia  
18:10 Marije-Izarrak

#### Infantil neskak

17:50 Goieko-Saizar  
18:40 Lurda Purtxilaria-

#### Infantil mutilak

12:30 Josue Igeltseritza-Goieko  
12:30 Errazkin Bizikletak-Perkuak  
Atsedendia: Laurok.

## Ikastaroa: BASALANDARE-XABOIAK TAILERRA

### NOIZ: Irailak 16

Lau orduko tailerra. 9.00-etatik 13.00-etara. Potxoenea Kultur etxean

**Irakasleak:** Jone Aldabaldetrekua Nekazal Injiniari Teknikoa eta Rita Aldabaldetrekua Irudi Erregistroa teknikan esperientziaduna.

#### HELBURUAK:

- Xaboiaren inguruko historia pixka bat ezagutuko da.
- Eskuko-xaboiak nola sortzen den ikasiko da.
- Osagai ezberdinak zein dositan erabili behar diren landuko da.
- Bere oinarritzko eta aukerazko osagaien inguruan hitzegingo da.
- Eskuko-xaboi ezberdinak egingo dira eta partaide bakoitzak gutxienez hauetako bat eramango du etxera.

#### METODOLOGIA

- Arbelean marraztuaz eta azalpenak entzunaz bereganatuko dira aurreko atalean aipatutako kontzeptuak.
- Xaboiak egiteko erabili beharreko materialak eta osagaiak eskura egongo dira. Azalpenak, materialak zuzenean erakutsiz egingo dira.
- Xaboiak egiteko oinarritzko azalpenak bereganatuta, gehienez lau pertsonako talde ezberdinek xaboi mota ezberdinak egingo dituzte.

#### BEHARREZKO MATERIALA (Ikasleek ekarri beharrekoa):

- Yogourt ontziak (moldeak).

#### Izen emateak:

**Online:** [www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak](http://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak)

**Alkartasuna Kooperatiba:** 943 361 114 - [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

**Prezioa:** 35€ (Alkartasuna kooperatibako bazkideek doan)





# Zubietako festak, iruditan





# Urdaiagako jaiak, iruditan





# “Bertaratu zineten guztioi, mila esker”

Jaiak ahalbidetu edota ekitaldiak gauzaten lagundu zutenei, nahiz asteburuan festa giroaz gozatzera hurbildutakoei eskerrak helarazi dizkie Atxegaldeko Jai Batzordeak sare sozialen bidez zabaldu duten oharrean. Dagoeneko 2018ko festei begira dira antolatzaileak:

“Atxegaldeko Jaiak igandean amaitu ziren, a ze tristura!

Jai Batzordeko primera igaro ditugu festak eta espero dugu gure plaza txikira hurbildu zareten guztiok ere ederki pasa izana bertan!

Hurrengo urtekoak prestatzen hasi aurretik, jai hauek posible egin dituzten guztiei eskerrak eman nahi genizkieke: udaletxeko brigadako langileei, ostiral eta larunbat



**Pozik eta esker onez agertu dira Atxegaldeko Jai Batzordeko ordezkariak: “Hurrengo urtekoak prestatzen hasi aurretik, jai hauek posible egin dituzten guztiei eskerrak eman nahi genizkieke”.**

gauak girotu zituzten musikari bikainei (Liher, Izeberg, Gabenara, Eromeria eta DJ Elepunto), jaien hasieran lagun izan ziren Matraka Elektrotxaran-

gakoei, larunbat arratsaldean bubble trouble-arekin haurrak jolasean jarri zituztenei, Artzabalek prestatutako afari goxoa musikatu zuten Ruben eta Ari-

tzi (aupa Ondarru people!), igande arratsaldea bertso musikatuarekin indarberritu zuen artista kuadrilari, musika teknikari lanetan ibili den Jon Garagarzari, azken traka ikusgarriaz arduratu zen Peperi eta noski, jaien jarraipen xehea egin duen NOAUA!-ko lantaldeari.

Amaitzeko, eskertza berezia helarazi nahi genieke igande goizetan salda eta pintxoak banatzen ibiltzen den taldeari, gure EKIPO A partikularrari. Beraiek ezingo dute hemen irakurri, baina badakite asko maite ditugula!

Eta nola ez, bertaratu zineten guztiei ere MILA ESKER!

Besterik gabe, aupa Atxegalde eta Atxegaldeko jaiak!

Hurrengo urte arte.

Atxegaldeko Jai Batzordea”.



**Argazkian, Atxegaldeko Mus Txapelketako irabazleak: Angel eta Rufino. Bigarren Uli-Orena bikotea izan zen, hirugarren Imaz-Esnaola eta laugarren Eneko-Mikel bikotea.**



**Toka Txapelketako finalean, Manuel Guadix nagusitu zen. Antonio Guadix anaia izan zuen aurkari finalean. Hirugarren saria Vicente Leronerentzat izan zen. Estilo onenaren saria, aldiz, Joxean Rodriguezentzat.**







# Irabazteko guztia, galtzekorik ez

**B**uruntzaldeko udalen helburua da bertako euskaltegiak datorren ikasturtean gutxienez 1.000 ikasle izatera iristea. Euskaltegirako pausoa ematera edo ematen segitzera animatu nahi dituzte herritarrek. Matrikulazio epea zabalik dute hilabete hasieratik Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo euskaltegiak. Mugi eta izena eman, irailan edo beranduenez urria hasieran abiatuko baita 2017-18 ikasturtea.

Euskara maila guztietan ikasi eta praktikan jartzeko aukera eskaintzen digute, lehen mailako tituluak euskaltegiatan bertan eskuratzekoa, euskaraz jarduera ezberdinetan parte hartzekoa baita. Merke gainera, ia doan, eskualdeko udalek herritarren eskura jarritako % 75-100 arteko dirulaguntzei esker, eta HABEk ikasmaita gaintzen dutenei emango dien bekari esker. Informazioa buruntzaldea.eus webgunean eskura daiteke.

## Bi udal euskaltegi

Bi udal euskaltegi ditugu eskualdean; Lasarte-Orian eta Hernanin. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan guztira 38 udal euskaltegiko sarea dugu, 1981. urteaz geroztik 16 urtetik gorako herritarrek euskalduntze eta alfabetatzeko lanetan. Unean uneko eskari eta beharrei erantzunez, euskara irakasteko material eta baliabide egokiekin jardunean. Azken urteetan on-line irakaskuntza ere garatu dute.

## Egoitza berria Andoainean

AEK-k berriz bost egoitza zituena orain arte; euskaltegi bana Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilen. Aipatzekoa, Andoainek egoitza berria estreinatu duela. Aurretik, Plazaola 2 helbidean aurkituko duzue AEK. 15 urterako lagapena egin dio Andoaingo Udalak AEK-ri.



Urnieta zen euskara ikasteko gunerik ez zuen udalerririk bakarrik Buruntzaldean. Orain arte. Jada azken ukituak ematen ari dira AEK-k Errekalde kalean zabalik duen egoitzari. Argazkia: Urnietako Udala.

## EUSKALTEGIAK

***“Euskara maila guztietan ikasi eta praktikan jartzeko aukera eskaintzen digute, lehen mailako tituluak euskaltegiatan bertan eskuratzekoa, euskaraz jarduera ezberdinetan parte hartzekoa baita. Merke gainera, ia doan”***

## Euskaltegi berri bat Urnietan

Urnieta zen bestalde, egun euskara ikasteko gunerik ez zuen udalerririk bakarrik Buruntzaldean. Orain arte. Azken ukituak ematen ari zaizkie aurrerantzean AEK-k Errekalde kalean jada zabalik duten egoitzari. “Aspaldiko eskaera zen. Hutsune bat bazen Urnietan. Euskaldundu nahi zuenak inguruko herrietako batera mugitu behar izaten zuen. Horrek askotan jendea atzera botatzen du”, adierazi digu Janire Urrestarazu, Urnietako AEK euskaltegiko arduradunak.

Euskaltegia aurrerantzean etxe ondoan izango dute beraz urnietarrek. Euskararen ezagutzan, baina batez ere elkarlana sustatuz erabileran eragin nahi dute Udalak eta AEK-k udalerririk honetan. Honenbestez, matrikulatzera animatzen gaituzte Urnietako euskaltegitik, eskualde osorako baliagarri den mezua azpimarratuz. “Animatu, behar bat dago eta

denon erantzukizuna da horri erantzutea. Denon arteko lan bat izan behar du”, azpimarratzen du Janirek.

Bailarako udal eta euskaltegiak egin bezala, euskara ikastea hizkuntza bat erabiltzeko ikastetik haratago doala gaineratzen du. “Mundu ikuskera bat irekitzen dizu hizkuntza bat jakiteak eta hori beti da aberatsa. Geroz eta hizkuntza gehiago jakin, ikuspuntu gehiago izango ditugu, kultura gehiago ezagutuko dituzu eta hori beti izango da aberatsa”, dio Janirek. Bai norberarentzat baita inguratzen gaituztenentzat ere.

## Matrikula opari

Euskara ikasteak gainera saria dakar oraingoan, bai AEK-n matrikulatzen denarentzat, baita bere lagun batentzat ere. AEK-n euskara ikasten ari bazara edo AEK-ko ikaslearen bat ezagutzen baduzu, adi beraz. 2017-18 ikasturterako matrikula bat oparitzera doa, zozketa bidez irailaren 27an. AEK-ko ikaslea edo ikasle baten laguna bazara, irailaren 22a baino lehen sartu aek.eus atarian eta parte hartu antolatu duten zozketan. Zozketako sarituak ikasturte berriko matrikula doan izango du eta sariduna gonbidatu duen AEK-ko ikasleak %50eko beherapena urriaren 2an abiatuko duten ikasturte berriko matrikulan. Zorte on!

## Eskaintza zabal da

### AEK euskaltegiak

Eskualde mailako eskaintza: euskaldundu, alfabetatu eta azterketak prestatzeko ikastaroak, autoikaskuntza, Mintzalaguna, Zilegi Eskolak, ordutegi eskaintza zabal... Hauek matrikulatzeko ordutegiak:

### Andoain

Ordutegia: 10:00-13:00/  
17:00-20:00.

### Astigarraga

Ordutegia: 09:00-13:00 (astelehena eta asteazkenetan);  
17:30-19:30 (astearte eta ostegunetan).

### Hernani

Ordutegia: 09:00-13:00 (astelehena, asteazken eta ostiralean);  
17:00-19:00 (astearte eta ostegunetan).

### Lasarte-Oria eta Usurbil

Ordutegia: astelehenetik ostiralera (11:00-13:00/18:00-20:00).

### Urnieta

Ordutegia: goizez.  
Informazio gehiago: aek.eus

## Udal euskaltegiak

Eskaintza: euskara maila guztietan ikasteko aukera, tituluak lantzeko ikastaroak, autoikaskuntza, kafe tertuliak, ordutegi malguak, epe ezberdinetan ordaintzeko erraztasunak...

### Hernani

Matrikulazio epea: irailaren 4tik 22ra. Ordutegia: 09:30-13:30/16:30-19:30.

### Lasarte-Oria:

Matrikulazio epea: irailaren 1etik 15era. Ordutegia: 09:00-19:15.  
Informazio gehiago: udaleuskaltegiak.eus



Buruntzaldeko udalek % 75 - % 100  
artean diruz laguntzen euskara ikastea!



Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus  
ka  
ra  
ikasiz**  
dena irabazteko,  
ezer ez galtzeko!

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!



#### ANDOAIN

**Andoaingo AEK**  
Plazaola, 2.  
andoain@aek.eus  
943 591 704

#### LASARTE-ORIA

**Muntteri AEK Euskaltegia**  
Geltoki kalea 17 Behea  
943 372 863  
lasarte@aek.eus

#### HERNANI

**Hernaniko AEK**  
Larramendi 11  
943 557 801  
607592864  
Zilegi eskola: 663043314

#### USURBIL

**Etumeta AEK**  
**Euskaltegia**  
Kale Nagusia 43, Behea  
607 609 379  
usurbil@aek.eus

#### ASTIGARRAGA

**Astigarragako AEK**  
Kultur etxea. Nagusia 48.  
eta Nabarra Oñatz 3  
607610687

#### Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1  
(anbulatorioaren  
gainean)  
943 36 16 21  
euskaltegia@lasarte-oria.eus

#### Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta 63  
(anbulatorio zaharra)  
euskaltegi@hernani.net  
943 331 896

#### URNIETA

**Urnietako AEK**  
**Euskaltegia**  
Errekalde kalea, 1



# Usurbil Gure Esku Dago: “Demokrazia eta erabakitze eskubidea babesteko unea da”

Urriaren 1ean Katalunian deitua dagoen erreferenduma babesteko manifestazioa deitu du Gure Esku Dago mugimenduak, irailaren 16an Bilbon. Arratsaldeko 17:30etan abiatuko da mobilizazioa “Demokrazia. Bozkatu erabakitze” aldarripean, Kasillatik.

Herritarra, jendetsua, anitza eta bateratzailea izan nahi duen hitzordu honetara joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbilgo Gure Esku Dagok. Irailaren 14ra arte eman daiteke izena guneotan; Artzabalen, Aitzagan, Patrin, Santuenea eta Aginagako Zahar egoitzetan eta Zubietako Alamandegin.

Autobusa manifestazioa hasi baino bi ordu lehenago abiatuko da Usurbildik; irailaren 16an, arratsaldeko 15:30ean Oiardo Kiroldegi paretik.

## “Katalunia eta erabakitze eskubidea babesteko unea”

“Kataluniak abagune historikoa bizi du. Gehiengo zabalez, etorkizuneko estatus politikoa erreferendum baten bidez erabaki nahi du datorren urriaren 1ean. Demokraziarekin eta erabakitze eskubidearekin konpromisoa duen edonor ezin da ezer esan gabe gelditu Kataluniako egoeraren aurrean. Demokrazia eta erabakitze eskubidea daude jokoan. Biak babesteko unea da.

Beraz, Kataluniako herriare-



Kataluniako erreferenduma babesteko manifestazioa deitu du Gure Esku Dago mugimenduak, irailaren 16an Bilbon. Usurbilen autobus zerbitzua antolatu dute. Izena emateko epea irailaren 14an itxiko da.

## IRAILAREN 16AN, BILBORA

**Bilboko manifestaziora joateko autobusa arratsaldeko 15:30ean abiatuko da Oiardo Kiroldegi paretik**

kiko elkartasun nahia euskal herritarren artean nagusi delakoan, manifestazio jendetsu bat antolatu Gure Esku Dagok, irailaren 16an Bilbon. Mobilizazioa herritarra, anitza eta bateratzailea izango da, eta erabakitze eskubidearen alde dauden sektore guztiak barnebiltzeko borondatea du.

Gure ustetan katalanen ahal-eginak merezi du une honetan euskal herritarren babesa, bultzada eta beroa; orain, inoiz baino gehiago. Erreferendumak posible izan behar du. Gure babesak balio behar du zigor bidea eta neurri errepresiboak alde batera gelditu daitezela. Auzi politikoetan ez dute tokirik.

Irailaren 16an Bilbon begirunea eta errespetua adieraziko diegu Kataluniako herritarren gehiengoaren borondateari; hau da, herritarrek etorkizuna erreferendum baten bidez erabakitzeari. Erabakitze bozkatzea demokrazia baita. Demokrazia besterik ez.

Usurbilgo Gure Esku Dagotik ere irailaren 16an Bilbora joateko deia luzatzen dizuegu herritar guztioi, Kataluniako herritarrei gure elkartasun osoa adierazteko. Ez zaudete bakarrik. No esteu sols. Estem amb vosaltres”.

## Izen-ematea non?

Usurbilgo Gure Esku Dagok autobusa antolatu du Bilbora joateko. 15:30ean aterako da kiroldegi paretik eta herritarrek irailaren 14ra arte dute bertan izena emateko epea. Artzabal, Aitzaga eta Patri tabernetan eman dezakete izena, baita Aginaga eta Santueneko zahar egoitzetan eta Zubietako Alamandegin.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

*Artzi*  
Patrienea Jatekxoa  
- bazkariak EGUNERO  
- afariak, asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5



# Trantsizio garaia hasi da Zumarte Musika Eskolan

**I**kastetxeek finkatua duten lehen klase eguna amaitu ostean, ostegunean bertan, irailaren 7an abiatuko du 2017-18 ikasturte berria Zumarte Musika Eskolak. Dakizueenez, aldaketekin. 32 urtez egoitza nagusia izan duten Kale Nagusiko Villa Pilar eraikina utzi baitute, gunea berritu eta handitzeko.

Leku aldaketa lanak uztaila hasieran bideratu zituzten auzolanean. Honenbestez, gutzia prest dute jada. Villa Pilar eraikinaren birgaitze lanak bi urte irautea aurreikusten denez, hurrengo bi ikasturteotan behin behinean herriko beste hainbat txokoetan kokatuko dira musikariak:

## Zumarteren behin behineko egoitza berriak

■ Udarregi Ikastola (eraikin gorria): Musika Txokoa, Musika Mintzaira, abesbatza, kla-



Udan zehar egin zuten lekualdatzea.

rinetea, eskusoinua, saxofoia, talde instrumentala, txaranga.

■ Agerialde: pianoa, trikitixa, panderoa, biolina, tronpeta, tronboia.

■ Santueneko frontoiko lokala: perkusioa, kitarra, rock-pop taldeak.

■ Puntapax kaleko lokala (garai bateko Atez Ateko Informazio Bulegoa): bulegoa, irakasle gela, flautako klaseak.

■ Salbatore parrokiaren: organo klaseak.

## Bulegoko ordutegia:

-Asteartea: 10:00-11:30/18:00-19:30.

-Osteguna: 10:00-11:30/18:00-19:30.

-Ostirala: 16:30-19:30.

## Oharra:

Zumartetik aditzera eman dutenez, "ikasleak ikastolako atarian egon behar dute irakaslearen zain". Horretaz gain, "bilera berezien ondorioz, bule-

goko ordutegiak aldaketak izan ditzake. Kasu horretan bidali zure kontsulta zumarte@telefonica.net helbidera edo utzi zure mezua 943 371 594 telefono zenbakiko erantzungailuan".

## Informazio gehiago:

zumarte.org

zumarte@telefonica.net

943 371 594

## "Aukera energetiko berriak errepideko garraioan" jardunaldia Lanbide Eskolan

Irailaren 20an Usurbilgo Lanbide Eskolan egingo den jardunaldi honetan, TKNIKA, JEMA Energy, Simon eta Agas21 enpresetako adituek hartuko dute parte. Izena emateko epea zabalik da. Telefonoz edo emailaz egin daiteke: 943 364 600  
energiaproiektuak@lhusurbil.eus

# Udalak mantentze lan ugari egin ditu udan

**U**dako sasoiaren aprobetxatuz, egokitze eta berritze lan ugari egin ditu Udalak.

Pintaketa lanak egin dituzte AEK-n, Aginagako Eskola Txikian, Ludotekan eta haurreskolan. "Gainera, Sutegi udal-liburutegiko kanpoko fatxada pintatu eta yoga egiten den lokalaren zorua berritu da", udal iturriek jakinarazi dutenez.

## Asfaltatze-lanak

Entzarrain bidean, Kale Nagusian eta Osinalde industriagunean. Horrez gain, Artzabal parean eta Kalezarreko Oxtape inguruan bi zebra-bide altxatu eta egokitu dira.



Agerialdeko lehen solairuko komunak berritu dituzte. Argazkia: Udala.

## Eskolak

Udarregi ikastolako fatxadetan impermeabilizazio lanak egin dira. Agerialden, berriz, lehen solairuko komunak berritu eta zaintza-gelako zorua berritu da. Horrez gain, Zumarte mu-

sika eskolako material guztia lekualdatu da eta datozen egunetan Aginagako Eskola Txiki-ko eszenatokia babestuko da.

## Parkeak

Askatasuna plazako aterpean

haurtzako joko berriak margotu eta San Estebango parkeko lorategiak berritu dira.

## Bestelako lanak

Santueneko udal etxebizitzan egokitze lanak burutu, San Estebango ur depositotik Berritzabarrenaraino ur hodia berritu, Alperroburu 8ko urbanizazioa bukatu eta hilerrri berriko handitze lanekin hasi dira. Gainera, hurrengo asteetan Erroizpeko urtegia hesiz inguratze lanak gauzatu dira.

Bukatzeko, Oiardo kiroldegiko spinning eta yoga-zumba geletan aire girotua izango dute erabiltzaileek aurrerantzean, beste hainbat mantentze-lanen artean.

# Transgresiora jauzi

Iaz umorea, aurten transgresioa. Politikoki zuzena izan eta ez denaren artean dagoen muga horrekin jolasteko egunak datozkigu Usurbila, Muxurbil, EHAZE eta Udalaren eskutik, Jauzi! Antzerki Egunekin. “Kulturaren eta antzerkian bereziki, transgresioa beti izan da konstante bat, gazteluetako ate sendoak botatzeko ahari buruak balira, makina bat sortzaileek bidea zabaldu baitiote ordurarte debekatua zegoenari. Gizakiak arrain ontzi bat bagina, uraren presioa ezin jasan eta bertatik atera nahi duen itsasoaren metafora”, diote antolatzaileek.

Transgresioa izango dute hizpide beraz, irailaren 14tik 16ra ospatuko diren kalejira, mahai inguru, ikastaro eta antzezlanek. Sarrera behar duten hitzorduetarako txartelak ekitaldi egunetan bertan jarriko dituzte salgai Sutegin. Antzerki egunetara jauzi egiten lagunduko



Muxurbil, EHAZE eta Udalak antolatu dituzte Jauzi! Antzerki Egunak.

digute, ostiral honetan (irailak 8), gure artera datozen Lasarte-Oriako Dantzarin taldekoek. 19:30etan hasita, “Djinji, djinji” ikuskizuna eskainiko digute Kaxkoan barrena.

## Usurbildarrak antzele

Astebete barru, irailaren 14ko pintxo pote orduetan ospatuko den kale ekintza musikatuaren antzeko ibilbidea osatuko dute. Iaz bezala, antzerki pieza laburrek hornituriko ekimena

antolatu da astebete barrurako. Tartean, Muxurbil antzerki taldeko helduen eta gaztetxoek antzezlan saio labur bana eskainiko digute. Pieza batetik besterako bidea, iazko udazkenean osatu eta Euskarenean Egunean estreinako ikuskizuna eskaintzen ikusi genituen Usurbilgo Artixten taldeko musikariekin osatu ahalko dugu kalejiran. Diziiplina ezberdinetako sortzaileen bilgune honetara jo zuten Jauzi!ko an-

tolatzaileek musikari bila “eta erantzun dute. Nahiko usurbildar izango gara parte hartzen”, iragarri dute.

## Santueneko festekin bat

Santueneko jaietara hedatuko dira Jauzi! Antzerki Egunak. Auzoko festen bigarren egunean, hilaren 16ko Haurren Egunean baitan, goizez zirkujostaldiko ekintzetan parte hartu ahalko dute gaztetxoek, doan noski. Gogoan izan, zirkujostaldiko tailer hau iaz, Aginagan ospaturiko Eskola Txikiaren Egunean baitan antolatu zela. Eskenatokiz aldatzea erabaki dute oraingoan. “Aurten Santuenean jarri dugu”, berri eman dute antolatzaileek. Menu betea beraz, ate joka ditugun antzerki egunetarako. “Animatu! Ekitaldiatarako prezio merkeak ditugu. Esperientzia berriak probatzeko aukera ederra” izango dela iragarri digute antolatzaileek.

# Jauzi! Antzerki Eguneako egitaraua

## Irailak 8, ostirala

■ 19:30 Lasarte-Oriako Dantzarin antzerki eta dantza taldearen kalejira Kaxkoan barrena, “Djinji, djinji!” ikuskizunarekin. Ate joka ditugun antzerki egunen pregoilari lanak egingo dituzte. Jauzi! Antzerki Egunean baitan, irailaren 14an antolatu duten antzerki pieza musikatuaren antzeko ibilbidea osatuko dute tabernen bueltan.

## Irailak 14, osteguna

■ 19:00 Kale ekintza musikatu. ■ Usurbilgo hainbat txokotan pieza desberdinak ikusi ahal izango dira; Daltonak taldeak “Lapur depresiboak”, Muxurbilek “Gure heroiak” biak usurbildarrak. Gorka Zubeldia eta Eñaut Gantxegi transfugek



Irailaren 15ean ostirala, Ander Lipus eta Patricia Urrutiak “Hozkailua” ikuskizuna eskainiko dute Sutegin.

“Opor politikoak” izeneko lana eskainiko dute. Alde batetik bestera joateko translazioan, musikaren laguntza izango dugu, musikariek ere pieza bereziak joaz (hauek ere usurbildarrak). Kalejirak osatuko duen bidea: Txiriboga, Txirris-tra, Antxeta pareko plazatxoak eta Artzabal.

## Irailak 15, ostirala

■ 19:00 Mahai ingurua Sutegin auditorioan: “Transgresioa, tabua ala desira?”. Hizlariak: Kattalin Miner, Oier Guillan eta Manex Fuchs... Gure artean izango dira gaiari buruz hausnartzeko. ■ 21:00 “Tentexut” zizka mizkak Sutegin.

■ 22:00 “Hozkailua” antzezlan-a Sutegin auditorioan.

■ Zuzendaria: Manex Fuchs.

■ Idazlea: Unai Iturriaga.

■ Aktoreak: Ander Lipus eta Patricia Urrutia.

■ Sarrerak: egunean bertan 5 euro (3 euro ikasle eta langabetuentzat).

■ Zehaztasunak: “Maite eta Karlos herririk herri dabil-tza hozkailu zahar batekin. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarten Jimmy lagunaren hilotza daramate. Zin egin baitzioten Jimmyri bere jaioterrian lur emango ziotela. Nongoa zen galdetzea ahaztu zuten ordea. Zinezko adiskidantza bat azaleratuko duen ezinezko bilaketa baten istorioa da Hozkailua”.

# Azken eguneko traka: zirkua, ikastaroa eta antzezlan

## Irailak 16, larunbata

■ **Zirku jostaldia** 11:00etan Santueneko frontoian. Haur eta gaztetxoentzako ekintza izango da. Sarrera doan. Azalpenak: Santueneko festekin bat eginez, zirku tailerra. Iaz Aginagako Eskola Txikiaren Egunean jarri genuen bezala, aurten Santuenean jarri dugu. Gaztetxoek parte hartu ahal izango dute, doakoa da.

■ **“Zatarraren edertasuna”** 18:00etan ikastaroa Sutegiko auditorioan.

Aktore eta zuzendaria: Iñaki Ziarrusta.

Ikastaro berezia, ohiko antzerkitik alendu eta lan egiteko modu berriak arakatuaz.

Sarrera: egunean bertan 5 euro (3 euro ikasle eta langabetuentzat).

■ **“Tentexut” zizka mizkak** 21:00etan Sutegin.

■ **“Fakiu” antzezlan** 22:00etan Sutegiko auditorioan.

ATX Teatro-ren lana.

Zuzendaria: Iñaki Ziarrusta.



Irailaren 16an larunbata, “Fakiu” antzezlan. 22:00etan Sutegiko auditorioan.

Idazlea: Fredi Paia.

Aktoreak: Belen Cruz, Sandra Fdez. Agirre eta Gabriel Ocina. Sarrerak: egunean bertan 5 euro (3 euro ikasle eta langabetuentzat).

Sinopsia: “Gosea, txizalarria, maitasuna, gorrotoa, egarria, sexua, beldurra... eta nola ez... biolentzia. Besteak beste, gure instintuetako batzuk dira hauek. Beraiei esker bizirau-

ten dugu historiaurretik gaur egun arte. Oinarrizko erremintak izan dira, badira eta izango dira bizitzan aurrera egiteko, animalia guztiekin partekatzen ditugun tresnak. Ezin izango genuke bizi hauetako bat kentzen badigute, ez ginatete bete-beteak izango.

Baina ezzz!!! Biolentzia ez!!! ezin dugu biolentzia erabili!!! Eta egia da, arrazoi gabeko

biolentzia ezin da erabili... baina arrazoa balego, ... egon liteke biolentzia erabiltzeko arrazoirik?... eta beste biderik ez dagoen? ... zer egin genezake bizirauteko?”.

■ Antolatzaileak: Muxurbil eta EHAZE (Euskal Herriko AntzerkiZale Elkarte). Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

## Berrikuntzekin, ikasturte berriari ekiteko prest da Muxurbil

Badatozen Jauzi! Antzerki Egunezako batean, irailaren 14ko pintxo potean antolatu den kale ekintza musikatuan parte hartuko du Muxurbil Antzerki Taldeak. Ekimen honen bueltan hasiko dute 2017-18 ikasturtea. Abiapuntu gisa ordea, taldeko dinamika eta asmoen berri jasotzeko bilera irekia deitu dute larunbaterako, irailak 9, eguerdiko 12:00etan Bake Epaitegi ondoko lokalean. “Hor zehaztuko ditugu ordutegi berriak, larunbat goizaz gain ostiral arratsaldeetan ere klaseak antolatzeko aukera baitago”, berri eman dio NOAUA!ri Ixabel Agirresarobek.

Sorpesarik ere izango omen da. Berrikuntzarik badakar ikasturte honek. “Azken urteetan Muxurbilekoek gabone-



Abiapuntu gisa, taldeko dinamika eta asmoen berri jasotzeko bilera irekia deitu dute larunbat honetarako, eguerdiko 12:00etan Bake Epaitegi ondoko lokalean.

tan antzezlan bat eskaini izan dugu elkarrekin. Aurten gauza berri bat egingo dugu. Irailaren 9ko bilerara etortzen denak izango du horren berri”, aurreratu digu Agirresarobek.

### Izen ematea zabalik

5 urtetik gorako herritar orok parte har dezake Muxurbilen.

Izen emateak zabalik segitzen du. Edozein arrazoi tarteko, bilerara gerturatu ezin duenak 675 71 23 83 (Ixabel) telefono zenbakian jasoko ditu argibide gehiago.

### Sormenean oinarritua

Muxurbilen ikasturteko dinamikari dagokionez, taldeka

banatzen dira Muxurbileko kideak, baina badute elkar-gunerik ere; eguberrietako emanaldia prestatu eta denek batera antzezten dute, ikasturte amaieran bezala. Iaz Hitz Ahok antolaturiko Jostailu Erabilien Azokan integraturiko emanaldia eskaini zuten. “Gure helburuetako bat, istorioak taldean bertan haurrek sortzea izaten da”, adierazi digu Ixabelek.

Batzuetan istorioak sortzen dituzte, besteetan pertsonaia solteak eta hauek josiz osatzen dute kontakizuna. “Lanketa kide bakoitzaren sormenean oinarritzen dugu”, nabarmen-tzen dute Muxurbiletik. Argi diote; taldean ez dela antzezteko estilorik markatzen, norberak dakarrena barrutik ateraraztea dela helburua.



# 65 urtetik gorako herritarren

**G**izartea zaharkitzen doakigula begi bistakoa da. 6.200 biztanle pasatxotik, 65 urte edo gehiagoko 1.141 bizilagun ditu Usurbilek. Etorkezunean kopuru hau are gehiago hazi daiteke, honenbestez baliabide gehiago bideratu beharko dira adin tarte honetako herritarrentzat.

Usurbilgo Udala, aurrera begira sor daitezkeen beharrei aurre hartzen hasia da. Aztiker Soziologia Ikergunearen laguntzaz, adin tarte horretan diren herritarrengana jo dute zuzenean. Haien errealitatea eta dituzten beharrak ikertu nahi izan dituzte. Egoera fisikoaz, aisialdiaz, etxekide eta inguru sozio-afektiboaz eta Udalak herritarroi eskaintzen dizkien zerbitzuez galdetu diete Aztikerreko inkestatazaileek.

## Etxean bizi nahi

Maiatza-ekaina artean etxetik elkarriketatutako 211 herritarrek benetan baliotsua izan daitezkeen informazioa helarazi diote Aztikerri eta soziologia ikerguneak Udalari. Txosten batean bildu dituzte emaitzak eta ondorio nagusiak.

Aurrera begira aintzakotzat hartu beharreko hainbat kontu aipatu dituzte adineko herritarrok. Esaterako, izan ditzaketen arazo edo mugen gainetik, gehienek orain arteko etxe berean segi nahi dutela bizitzeko. Ikerketak nabarmentzen duenez, arreta jarri beharra dago esaterako, muga fisikoak izan baina inolako laguntzarik jasotzen ez duten herritarren kasuetan.

Are gehiago, jakinik, gehienek nahiago dutela etxean bizitzen segi. “Beraz, pertsona horien autonomia maila ahalik



Herritarrek duten inguru sozio-afektiboak funtzio garrantzitsua betetzen du. Ia denak bizi dira jende gehiagorekin etxean. Argazkia, artxibokoa.

## 211 HERRITARREN IRITZIA

**“6.200 biztanle pasatxotik, 65 urte edo gehiagokoak 1.141 dira Usurbilen.**

**Egoera fisikoaz, aisialdiaz, etxekide eta inguru sozio-afektiboaz eta eskaintzen zaizkien zerbitzuez galdetu diete Aztikerreko inkestatazaileek”**

eta gehien zaintzea garrantzitsua da”, dio Aztikerren ikerketak.

## Udal zerbitzuak denei ahalbidetzea

Aipatzekoa da, herritarrok duten inguru sozio-afektiboak betetzen duen funtzio garrantzitsua. Ia denak bizi dira jende gehiagorekin etxean. Aztikerren ikerketak ohartarazten duenez ordea, bakardade egoerak saihesteko lan egin behar da etorkizunean.

Ikerketako emaitzek diotenez, udal zerbitzuekiko balorazio oso ona egiten dute elkarriketatutako izan diren herritarrok. Diotenez, ezagutu

bezain beste ez dituzte erabiltzen. Badago gainera zerbitzuok erabiltzeko zailtasunak dituen sektore bat, mugikortasun arazoengatik gehienbat. “Garrantzitsua litzateke egoera berezi hauek aztertzea eta zerbitzuak Usurbilgo adineko herritar guztiengana berdin heltzeko bideak bilatzea. Alor honetan, Udalak zailtasun horien atzean dauden arrazoi posibleak aztertzea komenigarria da, nolabaiteko irtenbide bat emateko helburuarekin”, dio Aztikerrek eginiko ikerketak.

## Udazkenean, zerbitzu berri bat martxan

**I**kerketa honen sustatzaileek eskerrak helarazi nahi dizkiete elkarriketatutako izan diren herritar guztiei, bai parte hartu izanagatik, baita etxeko atea ireki

izanagatik ere.

Udalak iragarri duenez, adin tarte honetako herritarrei zuzenduriko zerbitzu berri bat abiatzera doa udazkenean; Eguneko Arre-

ta zerbitzua. Informazio gehiago asteotan eskainiko dute. Iraila amaierarako, gai honen berri zehatzago emateko bilera ireki bat ere deituko dira.

# erradiografia

## Azterketaren xehetasunak

■ Azterketaren egilea: Aztiker Soziologia Ikergunea, Usurbilgo Udalaren enkarguz.

■ Noiz egingo: 2017ko maiatzaren 29 eta ekainaren 15 artean.

■ Prozedura: 20-25 minutuko elkarrizketak aurrez aurre, 211 herritar elkarrizketatzen etxetan. Elkarrizketen %60 euskaraz egin dira, %40 erdaraz gutxi gorabehera. Aurrez, Udalak eskutitz bidez jakinarazi ziren 65 urte edo gehiago dituzten 1.141 usurbildarrei, ikerketa honetan parte hartzeko hautatuak izan zitezkeela. Kopuru honetatik, 211 hautatu ziren.

■ 65 urte edo gehiagoko herritar kopurua: 1.141.

■ Elkarrizketak egiteko hautatutako lagina: 211 herritar.

## Emaitza nagusiak

### Egoera fisikoa

■ %57,8k ez du muga fisikorik eguneroko zereginetan, %34,1ak bai aktibitate batzuetan.

■ %8,1eko kasuan, muga fisikoak (bereziki 75 urtetik gorako herritarrek) ekintza guztiak zailtzen dizkie.

■ Muga fisikoak ahalegin fisikoarekin lotuak; %33,3ak mahai bat mugitzerakoan ditu muga fisikoak, %30,5ak eskilarak igotzerakoan, %27,5ek paseatzerakoan.

■ Gehienek laguntzaren bat jasotzen dute ekintzotarako. Jasotzen duten laguntza: boluntarioa (familia-kide batena gehienetan), soldatapeko langilearena edo laguntza tekniko edo mekanikoa.

■ Halere muga fisikoak dituzten herritar askok ez dute laguntzarik jasotzen: %46,2ak eskilarak igotzerakoan edo %62,1ak paseatzerakoan.

■ Inkestatuak bere buruari



%57,8k ez du muga fisikorik eguneroko zereginetan, %34,1ak bai aktibitate batzuetan.

### AISIALDIA

**“Erdigunean bizi direnek asebetetze maila handiagoa dute, erdigunetik kanpo bizi direnena baino. Geroz eta helduagoa izan, orduan eta asebetetze maila baxuagoa”**

emandako balorazioa: %64ak bere osasun egoera fisikoa ona edo oso ona dela dio, %22,7ak erdipurdikoa eta %13,3ak txarra edo oso txarra dela.

### Etxekideak eta inguru sozio-afektiboa

■ %85 jende gehiagorekin bizi da etxean eta ia denak gustura. ■ Bakarrik bizi direnen perfila, emakume alargunarena da. Bakarrik bizi direnen %93,8a inguru sozialarekin harreman-tzen da eguneroko edo ia eguneroko.

■ %90ak eguneroko edo ia eguneroko harremana du ingurukoekin; %68,2ak bizilagun edo auzokideekin eta gero familia edo lagunekin. %2,4k inguruarekin harreman oso gutxi du

edo batere ez.

■ %98,1ak etxean bizitzen segi nahi du.

■ %25ak, tutoretzapeko etxebizitza batean bizi eta trukean bere etxebizitzari bestelako erabilera emateko aukerarekiko jarrera positiboa agertu du.

### Aisia eta denbora libre

■ Pertsona aktiboagoak dira, denbora libre antolatua duten moduarekin asebetetze daude. Erdigunean bizi direnek asebetetze maila handiagoa dute, erdigunetik kanpo bizi direnek baino. Geroz eta helduagoa izan, orduan eta asebetetze maila baxuagoa.

■ %51,7ak erregularri aktibitate fisiko egiten du.

■ %33,6ak eguneroko aktibitateak.

■ %13,7a guztiz edo ia guztiz inaktiboa da egunerokoan.

■ Gustukoen dituzten ekintzak: %73,9ak kirola egin edo paseatzea, %43,6ak irakurri edo idaztea, %36,5ak lagunartean egotea.

■ Aisialdirako mugak: ezintasun fisikoak, denbora falta edota aktibitate zehatzen bat egiteko aukerarik ez egotea.

## Adineko herritarrei zuzenduriko udal zerbitzuak

■ Zerbitzuen balorazio ona. Gabezia garrantzitsurik ez dute sumatzen.

■ Zerbitzuen informazio falta sumatu dute herritar batzuk. %18ak zerbitzuak erabiltzeko zailtasunak ditu; mugikortasun arazoengatik gehienbat.

■ Zerbitzuen ezagutza: %96,2ak jubilatu etxea ezagutzen du, %88,2ak bus-taxia, %81,5ak etxez-etxe-ko zerbitzua eta %79,6ak Goazen Kalera egitasmoa.

■ Zerbitzuen erabilera: %67,3ak jubilatu etxea baliatzen du, %12,8ak bus-taxia eta %11,4ak oroimen tailerrak.

■ Udal zerbitzuen balorazioa: 8,1 puntutik gorakoa.

■ Egun ez dauden zerbitzuen eskaera: %20-25ek jangela soziala eskatu du, Eguneko Arreta zerbitzua erabiliko lukete. %16,6ak erresidentzia eskatu du. Iturria: Usurbilgo Udala.



## Bi usurbildar, Kontxako Banderan

Igandean jokatu zen Kontxako Banderako lehen jardunaldian bi usurbildarrek parte hartu zuten. Emakumezkoetan, zazpigarren postuan sailkatu zen Donostiarra ontzian parte hartu zuen Nagore Arrutik. Gizonezkoetan, bigarren denbora onena egin zuen Hondarribia taldean Alex Udabek. Abuztuaren 31n jokatu zen sailkatze proban bestalde, hirugarren herritar bat ere lehiatu zen Donostiako uretan; Josu Ostolaza, San Pedro ontzian. Gutxigatik ordea ez zuten estropada hauetan parte hartu ahal izateko txartela eskuratu.

### Tren zerbitzu berezia

Kontxako Banderan garaile nor suertatuko den igande hone-



Nagore Arruti Donostiarra ontzian ari da. Alex Udabe Hondarribia taldean. San Pedron ari da Josu Ostolaza, baina Pasaiaiko traineruak ez zuen Kontxako Banderan lehiatzeko txartela lortu.

tan, irailaren 10ean jakingo da. Goizeko 11:00etan hasita jokatu da emakumezkoen txapelketa, 12:00etatik aurrera



gizonezkoena. Gogoan izan, Donostiara joateko ohi baino tren zerbitzu gehiago antolatu du Euskotrenek.

## Jendetza batu zen Kalera Martxan



Uztaila amaieran Gernika Lakuntzarekin lotu zuen Udako Kalera Martxako irudia duzue ondokoa, uztailearen 25ean Usurbildik igaro zenean. Harrera jendetsua egin zitzaion, euskal erreprelariatu politikoen kaleratzea aldarrikatu zuen ekimenari.

### Urriaren 21ean, 1955ean jaiotakoan eguna

Ohiturari jarraituz, urriko hirugarren larunbatean elkartuko dira. Aurten, urriaren 21ean. "Honakoan ezberdin ospatuko dugu", ohar bidez jakinarazi dutenez. "Errioxara bisita eginez egunpasa egingo dugu, Guardia-Laguadiara joanez. Bodega batean bisita-dastaketa egingo dugu, eta bertan bazkalduko dugu. Tartearen, Guardiako kaleetan gora-behera-zeharka ibiltzeko aukera izango dugu".

Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da.

### Izenak emateko:

Maribi Arrospide 675006445  
Patxi Arruti 615760458

### "Ikimilikiliklik" erakusketa, orain Irunen ikusgai

Joxan Artzeren inguruko erakusketa Gasteizen ipini zuten udaberria partean. Aurreko astetik Irungo Oiasso museoa da. Azaroaren 1era arte egongo da bertan ikusgai. Irungo Eskoletako kalea 1 helbidean aurkitzen da museoa.

Bisita orduak: astearte, asteazken, ostegun eta igandez: 10:00-14:00. Ostiralean eta larunbatetan: 10:00-14:00 / 16:00-19:00.

### Informazio gehiago:

943 63 93 53.  
info-oiassomuseo@irun.org

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4 20170  
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 USURBIL

# Abiatu da Enrique Abril Errebote Txapelketa

Aurreko igandean jokatu zen lehen norgehiagoka. Eguraldia oztopo ez bada, irailean jokatuko dira kanporaketak eta finala urriaren 8an Oiartzunen. Lehiakideen artean izango da Zubietako errebote taldea.

Lau talde hauek lehiatuko dira aurtengoan: Gipuzkoako Behar Zana (Villabona), Txost (Oiartzun) eta Zubieta (Zubietako); eta Lapurdiko Luzean (Donibane Lohizune). Lehenik, itzuli bateko ligaxka jokatu dute guztiek, denek denek aurka, irailaren 3tik 24ra bitartean. Partida guztiak Oiartzungo, Villabonako eta Zubietako plazetan jokatu dira.

## Finala, Oiartzunen

Bigarren eta hirugarren postuan sailkatzen diren taldeek finalerdia jokatu dute, partida batera, urriaren 1ean. Beti ere, eguraldiak ez badu txapelketaren martxa baldintzatzen. Eta finalerdiko irabazleak finala jokatu du, lehenengo



Behar Zana (Villabona), Txost (Oiartzun), Zubieta (Zubietako) eta Luzean (Donibane Lohizune) taldeak arituko dira aurrez aurre.

faseko aurreneko sailkatuaren aurka. Finala urriaren 8an jokatu da Oiartzungo plazan. Egutegia, behin behinekoa, gipuzkoapilota.eus orrialdetik hartu dugu.

## Lehen fasea

**Irailak 3 igandea**  
**Villabonako plazan**  
Luzean 13-Behar Zana 2.

**Irailak 10 igandea**  
**Oiartzungo plazan, 10:00**  
Txost-Zubietako.

**Irailak 17 igandea**  
**Oiartzungo plazan, 11:00**  
Txost-Behar Zana.

**Irailak 17 igandea, 11:30**  
**Zubietako plazan**  
Zubietako-Luzean.

**Irailak 24 igandea**  
**Zubietako plazan, 11:00**  
Behar Zana-Zubietako.

**Irailak 24 igandea, 11:00**  
**Oiartzungo plazan**  
Luzean-Txost.

## Yoga eta Reiki ikastaroak Santuenean

Urtero legez, hainbat ikastaro antolatuko dituzte Santuenean. Yogakoa irailaren 19an hasiko da eta Reikikoa irailaren 20an. Izen-ematea zabalik da.

**Yoga**  
■ Irailaren 19an hasiko dira.  
Asteartetan: 16h-17:30;  
18:30-20:00; 20:30-22:00.  
Ostegunetan: 16h-17:30;  
20:30-22:00.

**Reiki**  
■ Irailaren 20an hasiko da.  
Asteazkena: 17:00-20:00.  
Izen-ematea: 619791170  
abelinamanso@gmail.com

## Aginagako Pilota Txapelketa

Eskuz binaka, Nagusiak Final zortzirenak

Irailak 5 asteartea, 19:00h:

Loidi-Santxez  
J.Urbieta-Otaño

Urbieta-Urruzola  
Etxezarreta-Usandizaga

Irailak 8 ostirala, 18:30h:

Ojuel-Telletxea  
Artetxe-Elola

Apezetxea-Aizpitarte  
Taberna-Garagarza

## Euskal Kopa eskuratzetik hurbilago

Irailaren 2an jokatu zen Oiardo Kiroldegian, 2017-18 denboraldiko lehen eskubaloi neurketa ofiziala; senior mutilena. Euskal Kopako partida jokatu eta irabazi zuten. Azken emaitza: Usurbil K.E. 31-27 Elgoibar-ko Sanlo E.K.T. Hurrengo faserako sailkatu dira usurbildarrak. Trapagaran taldearen aurka jokatu dute hurrengo partida.

## Andatzakoak, Pirinioetan

Uztailaren 12a baino lehen izena eman zuten herri-tarrek Pirinioetara aste-burupasa antolatu du Andatza M.K.T.-k asteburu honetarako. Hurrengo irteera, urriaren 8an Anbotora. Informazio gehiago: andatzamendizale.info

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK  
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665  
XABIER  
Usurbil



**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafetakoa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrena etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, telatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokal-

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

**Alokairuan**

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Gizaseme langile edo jubilatu batentzat (nahiago euskalduna). 687 348 223.

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaixoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil

Usurbilen, 3 logeekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

**MOTORRA**

**Salmenta,**

**garajeak**

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziliindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Astebururako langile bat behar dugu Laukote okindegian. Bidali kurrikuluma helbide honetara: eelorza202@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@atalanaocidente.com. 699 760 873.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Euskal filologoa, Mondragon Unibertsitateko masterrarekin eta oso kurrikulum zabalarekin eskaintzen da, euskarako klaseak emateko maila guztietan. Klase partikularrak bai akademietan eta enpresetan. 638 917 714

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851



**Zorionak!** Etxeko neskatilak 8 urte bete ditu. Elkarrekin ospatuko dugu festa giroan. Muxu handi bat maite zaitugunon partetik!



**Zorionak Areia eta June!** 3 urte beteko dituzu Areia irailaren 9an eta zuk June 7 urte irailaren 11n. Ederki ospatuko ditugu zuen urtebetetzeak! Muxu potoloak etxekoan partez!



**Zorionak Unai!**

Uztailen sei urte bete zenituen. Annie, aita eta ama muxuuuuu!

**Heriotzak**

**Antuan Ugarte Agirre**

38 urterekin hil zen uztailaren 30ean



**Pedro Mari**

**Aizpurua Huici**

65 urterekin hil zen abuztuaren 18an, Zubietan



**Martin Aliri Añorga**

95 urterekin hil zen abuztuaren 18an, Zubietan



**OHARRA:** 2017ko irailaren 15ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: irailaren 11n astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatze-ko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenerik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketari lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia Sean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketari egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka:

619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanak egiten lan egongo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egongo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egongo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egongo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatría laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketari lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jate-txek batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Pa-

perak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrik emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrik, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanak eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

#### BESTELAKOAK

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupukoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, libururuak... Garbiñe. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 07** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 08** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 09** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 10** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 11** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 12** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 13** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Irailak 07 - irailak 17

**Osteguna 14** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 15** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 16** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 17** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.



# Agenda iraila

## 08 ostirala

- **Masusta Kofradiaren Eguna.** 21:00etan Artzabal tabernan.
- **Djini djinji kalejira.** 19:30etik aurrera. Antolatzailea: Jauzi Antzerki Egunak.

## 09 larunbata

- **Sagarrondotik sagardora ikastaroko saioa.** 09:00-13:00 Potxoenean. Izen ematea: 943 361 114/ alkartasuna@usurbil.com

## 10 igandea

- **Giza-katea Kontxan.** 11:30ean, Donostiako Alderdi Ederretik Kontxako hondartzara jaisteko tokian.

## Ostiral honetan abiatuko dira Jauzi Antzerki Egunak

Jauzi jardunaldien astea hurrengo izango da. Girotze lanak, dena den, ostiral honetan hasiko dira. Lasarte-Oriako Dantzarin antzerki eta dantza taldeak "Djinji, djinji!" ikuskizuna eskainiko du. Kalejira ibiltaria 19:30ean abiatuko da.

### "Djinji, djinji" ikuskizuna Irailak 8, ostirala

■ 19:30 Lasarte-Oriako Dantzarin antzerki eta dantza taldearen kalejira Kaxkoan barrena, "Djinji, djinji!" ikuskizunarekin. Ate joka ditugun antzerki egunen pregoilari lanak egingo dituzte. Jauzi! Antzerki Egunen baitan, irailaren 14an antolatutako antzerki pieza musikatuek osaturiko kale ekintza musikatuen antzeko ibilbidea osatuko dute tabernen bueltan. Antolatzaileak: Muxurbil eta EHAZE



Argazkian, iazko ekitaldietako bat.

(Euskal Herriko AntzerkiZale Elkarteak).  
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

### Datorren astelehenean, hilak 11, odol ematea

Usurbilgo Odol Emileen Elkarteak, datorren astelehenerako finkatu du bi hilean behin deitu ohi duen hitzordua; 18:00-20:30 artean ambulatorioan.

### Asteburupasa Benasquen

Andatzakoak Benasqueko bailarara joango dira asteburu honetan, "Posets (3375 m) egiteko asmoz". Izen ematea uztailean itxi zen.

### Datozenak

#### Santueneko jaiak

##### Irailak 15, ostirala

17:00 Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada Tragoxka tabernaren eskutik. Ondoren, globo gerra.  
18:30 Buruhandiak, Ustekabe txaranga.  
19:00 Sardina jana.  
21:00 Musikarien afaria.  
23:30 Kontzertuak: Kezka eta Fridays Crew; Joxpa Erromeria.

##### Irailak 16, larunbata

10:30 Pintura lehiaketa.  
11:00/13:00 Zirku jostaldia.  
13:00 Buruhandiak.  
14:00 Haur bazkaria (Norberak bere bazkaria ekarri, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).  
16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).  
16:00 Haurrentzako puzgarriak.  
17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzaren eskutik.  
19:00 Buruhandiak.  
21:00 Herri Afaria.  
00:00 Dj Mikeltxi.

##### Irailak 17, igandea

11:00 Toka txapelketa.  
12:00 Hamaiketako txosnan.  
14:00 Herri bazkaria.  
17:00 Gorritiren showa.  
Ondoren, buruhandiak.  
19:30 Piper dastaketa.  
21:00 Festen amaierako traka.  
Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Inaki  
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com

Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

Fax: 943300045

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*

**mistoa**

Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**KAMDEN**  
hizkuntzak

**English courses**  
**CONGRATULATIONS!**

Alazne Irazabalbeitia Fariña  
Julen Chato Noriega  
Maddi Ibargoiien Martinez  
Maialen Hernandez Sagardia  
Nere Eizagirre Aizpuru

**Matrikulazio epea zabalik 14arte!**  
**12:00-13:00 eta 18:00-20:00**  
[www.kamdenhizkuntzak.com](http://www.kamdenhizkuntzak.com)

Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402

## Ikastaroa: Mahastizaintza ekologikoa

**Irakaslea:** Daniel Pasquet VINI VITIS BIO-CONSULTANTS elkarte

\* Frantsesez izango da ikastaroa, Cristina Maidagan itzultzaileak gaztelerara itzulita.

**Saioak:**

**Gaia:** Mahastizaintza ekologikoaren gakoak, osasunaren kudeaketa eta tratamenduen egutegia

Irailak 18: Saio teorikoa Usurbilen (Potxoenea kultur etxean).

Irailak 19: Bisita teknikoa Artazubillaga baserrira (Bedoña auzoa, Arrasate)

**Prezioa:** Iraila 60€ (Alkartasuna Kooperatiba eta Biolur-eko bazkideek 40€)

**Izen emateak (plaza mugatuak):**

**Online:** [www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak](http://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak)

**Alkartasuna Kooperatiba:** 943 361 114 - [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

**Biolur:** 943 761 447 - [josune@biolur.net](mailto:josune@biolur.net)

Alkartasuna Kooperatiba  
Atallu industrialdea 26, Usurbil  
Tel.: 943 361 114 - 630 938 027  
[alkartasuna@usurbil.com](http://alkartasuna@usurbil.com) - [www.alkartasuna.eus](http://www.alkartasuna.eus)





# Masha y el Oso™



## URBIL BISITATUKO DUTE MASHA ETA HARTZAK

Joku elkarreragileak, eskulanak eta ipuin-kontaria Hartzaren etxean.

Gainera **zuzenean ezagutu** eta beraiekin argazkiak egin itzazu larunbata arratsaldeetan!

Asteleheneretik ostiralera 16:30etatik 20:30etara. Larunbata eta igandeak 12:00tik 14:00etara eta 16:30etatik 20:30etara. Kids Zone txartelarekin sar zaitez (ez baduzu, momentuan eska dezakezu dohainik).

[www.urbil.es](http://www.urbil.es) orrian kontsultatu ezazu informazio guztia.

IRAILAK

1-17

[urbil.es](http://urbil.es)        

 **urbil**

© Animaccord LTD, 2008 - 2017 [www.mahabear.com](http://www.mahabear.com)

MADE IN YOU